

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0300

GAIA: PAUSO BERRIAK 2025

ESPEDIENTEA: 2025GDIR0003

INTERESDUNA: JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA (IFK: G20177614)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 5.250,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Gizarte zerbitzuetako teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA-ren (IFK: G20177614) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOA- FUNDACIÓN PATRONATO JOSE ARANA-ri 5.250,00 €-ko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa antolatzeko: okupazional gisa adimen urria duen pertsona bat enpresan izatea aurreko urteetan bezala.

Programa horrek helburu nagusi bezala duela, alde batetik, adimen urria duten pertsonak bere inguruko enpresa eta erakundeetan sartzea, eta horrela, orain arte bazterketa egoeran zeuden pertsonen lanerako aukerak zabaltzea. Eta bestetik, enpresa sarearen eta, orokorrean, gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa adimen urriko pertsonen gaitasunaz lan inguru arruntetan aritzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 5.250,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0300.471.231.90.01 2025 partidari egozte.

ALKATEA,